



**Guztiontzako akordio
arautzaile on bat
lortu behar dugu!**

17 Urte lan-baldintzak
arautzen dituen
akordioa berritu gabe



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

ELA SINDIKATUAREN ALDARRIKAPENAK

Osakidetzak 17 urte daramatza plantillaren lan-baldintzak arautzen dituen akordioa berritu gabe. 17 urte!

Errealitate horrek argi eta garbi erakusten du plantillak azken urteotan pairatzen ari den egoera: Mahai Sektorialaren blokeoa; murrizketa zuzenak (adibidez Lanbide Garapenean egindakoa); behin-behinekotasuna handitzea (%43tik gorakoa); %20ko eros-ahalmenaren galera metatua; lan-kargak handitzea; plantilla gero eta urriagoa; kontziliazio-neurriak baliatzeko eta baimenak eta lizentziak baliatzeko zailtasunak; murrizketak erretiro aurreratuan eta erretiro hori ahalbidetzeko neurrietan (adibidez, erretiro aurreratuaren primak); eta abar.

Egindako presioak eta azken urteetako mobilizazio eta grebek agenda politikoan kokatu dute Osakidetza. Eusko Jaurlaritza behartu dugu Osakidetzak arazoak dituela onartzeraz eta orain arte eman nahi ez zituen pauso batzuk ematera.

Hala ere, itxurazko borondate berri hori ezerezean gera daiteke presioa egiten jarraitzen ez badugu. Osakidetzak Akordio Arautzailea berritzeko asmoa planteatu du baina hori esaten duen bitartean, ez du aurrerapausurik ematen. Hare gehiagorik, bere plantillaren lan baldintzak hobetzeko aukera badauka ere, mobilizazioetan dauden edo egon diren kolektiboen inguruan hitzegiten duenean, Madrilera begira jartzen da Osasun Sailburua, eta Espainiako Gobernuari eskatzen dio bere ardura diren gauzak konpontzeko.

Guztionezko akordio on bat behar dugu, eta mobilizazioa da langileek merezi dituzten hobekuntzak abiarazteko bidea. ELAk Eusko Jaurlaritzaren sukalde eta garbiketa arloan sinatutakoa bezalako akordioek erakusten dute mobilizazioa eraginkorra dela eta akordio onak posibleak direla.

Gure eredu sindikala langileekin bakarrik eraman daiteke aurrera, Administrazioaren botereari aurre egiteko bide bakarra antolatzea baita.

Lan Baldintzen Akordio berriaren noegoiazioan, **ELAk honako aldarrikapenak eramango ditu Negoziazio Mahaira.** Azpimarratu nahi dugu, aldarrikapenak langileen artean egindako inkesten ondorio zuzena direla. ELArentzat, ezinbestekoa da langileak entzutea.

Berez, iadanik jakinarazi dizkio ELAk Osakidetzari:

ORDAINSARIAK:

IGOERA:

- 2022-2026 urteetan galdutako eros-ahalmenaren berreskurapena + %2: %9,5eko igoera kontzeptu guztietan (soldata + osagarri guztiak).
- Aurretik galdutako eros-ahalmenaren zorra onartu eta berreskuratzeko konpromisoa.

OSAGARRIAK:

- Lanpostu bakoitzaren osagarri espezifikoen zenbatekoa zehazteko, lanpostu guztien balorazioa, lanpostu bakoitzaren zailtasun tekniko, erantzukizun, dedikazio, nekagarritasun, arrisku, bateraezintasun eta abarren arabera. Balorazio horren baitan, langileak jasotzen duen zenbatekoa ezin da izan oraingoa baino txikiagoa.
- Bitartean, eta gaur egun indarrean dagoen osagarrien sistemari dagokionez: egun indarrean dauden osagarrien izaera eta zenbatekoa berrikustea, gaur egun existitzen ez diren osagarri berriak sortuz eta horien guztien zenbatekoak berrikusiz eta hobetuz.
- Hartu beharreko neurrien artean, honakoak adostu behar dira nahitaez:
 - %4ko osagarria kategorian eta lanpostu guztietan hedatzea.
 - Produktibitate finkoko osagarria kategorian guztietara zabaltzea

- Esklusibotasun-osagarria sortzea kategorian guztietan Osakidetzan bakarrik lan egiten duten langileentzako.
- Txanda osagarria ordaintzea txanda finkoa ez daukaten langile guztiei (txanda-erregimena edozein izanda).
- Lan toxikoa, nekagarria eta arriskutsua konpentsatzen duen osagarria sortzea.
- Kilometrajea eta dietak ordaintzea.
- Lokalizazio osagarriaren zenbatekoa hobetzea.
- Desplazamendu denbora, lan denbora bezala konputatzea kategorian guztientzako kubritzen zailak diren lanpostuak dauden lan zentroetan (Osakidetzak eskaini ditu OPE ezberdinetan kubritzen zailak diren fakultatiboen lanpostuak).
- Zentru kondinatzailearentzako osagarri bat sortzea.
- Lanbide Garapena:
 - Ordaindu beharreko kopuruak berrikustea, lanbide-taldeen arteko arrakala murriztuz.
 - 35/2007 eta 248/2007 Dekretuetan jasotako kategorian guztietan ehuneko komunak aplikatuko zaizkie (I. maila % 6,70; II. maila. % 13,41; III. maila. % 17,89; IV. maila. % 24,58) egungo Akordioaren I. eranskinean jasotako lanbide-taldeko kategorian nagusiko ordainsariei.
- Lizentzia eta baimen guztietan, karteleraren arabera aurreikusitako osagarri guztiak ordaintzea.
- Larunbata jai egun bezala ordaintzea.

EPEAK:

- Igoera, hobekuntza eta osagarri guztiak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira eta kontsolidatuak izango dira, ezingo dira absorbitu edota konpentsatu ere.

JARDUNALDIA:

- 32 orduko lanaldia astean.
- Lanaldi osagarria ezabatzen joateko plana plantillen haunditzearen bitartez.
- Autokontzertazioa ezabatzen joateko plana plantillen haunditzearen bitartez.

GAZTEBERRITZE PLANA:

- Aurre-erretirotarako primak berreskuratzea.
- Itzarrira aportazioak berreskuratzea: Osakidetza ordainsarien %3a aportatuko du urtean.
- Erretiro Partziala langile guztientzat. Errelebigak kontratu finkoekin kontratatzeke, jada gauzatu diren prozesuetako zerrendak erabiltzea, berehalakotasuna bermatzeko.
- 58 urtetik aurrera lanaldiaren herena murrizteko eskubidea eta 61 urtetik aurrera lanaldi erdia murrizteko eskubidea, soldata eta kotizazioak murriztu gabe.
- Murrizketa hori akumulatiboa izateko eskubidea, praktikan, langileek lan egiteari uzten dioten adina aurreratuz.

ENPLEGUA:

- Pribatizazio berririk ez. Eta jada pribatizatutakoa publikatzeko plana adosteko konpromezua langileen subrogazioa bermatuz.
- Behin behinekotasun erreala %8ra jeistea adostu salbuespenezko prozesu bidez eta behin-behinean lanean daudenak kontsolidatuz. Horretarako, betetzen zailak diren lanpostuetarako erabilitako formula erabiltzea eskatzen da: meritu lehiaketa (azterketarik gabe).

SAILKAPEN PROFESIONALA:

- Formakuntza sistema berriari eta kategoria bakoitzaren perfil eta ardurei egokitutako sailkapen profesionala.
- Sailkapen horrek, ondorio ekonomikoak izan behar ditu.
- Administrazio Laguntzailearen lanpostuak ezabatzea eta Erantzukizun Bereziko Administrazio Laguntzailea bilakatzea lanpostu guzti horiek, dagozkion ondorio ekonomiko eta profesionalekin.

LIZENTZIAK ETA BAIMENAK:

- ELAk lizentzia eta baimenen plataforma aurkeztu zion Osakidetza 2025eko maitzean. Horiek dira gure aldarrikapenak.
- Bertan jasotako arteen, nabarmenduko genituzke.
 - Inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko lanaldi murrizketak eta eszedentziak, adin mugarik gabe.
 - Baimenak loturagramen bitartez hedatzeko aukera.
 - Lanaldi murrizketa unibertsala.
 - Adingabeak/helduak medikura laguntzeko baimena eta baita eskolako bileretara joateko baimena.
 - 62. artikuluan jasotzen den 50 orduko baimena hedatzea egoera horrean egon daitezkeen senide guztiei, mugarik gabe.
 - Zaintzarako lanaldi malgutasuna.
 - Ordainsari partzialeko baimena (urte sabatikoa).
 - Lan orduen barruan bilera sindikalak egiteko baimena.
- Kasu guztietan, langileek lizentziak eta baimenak hartu ahal izateko bermeak eduki beharko dituzte. Gaur egun, kasu askotan, praktikan, arazoak daude.

FORMAKUNTZA:

- Formakuntza lan orduen barruan egin ahal izateko baimena.

LAN EGUTEGIA ETA KARTELDEGIA:

- Urteko lan-egutegia
- Lanaldiari egokitutako karteldegia, ez soberakoa, ez defizitariora.
- Behin-behineko kontratuetan, opor, baimen, lizentzia eta HLeko egunak hartzeko aukera.
- Behin-behineko kontratuak kateatzen direnean, oporrak eta HLko egunak gordetzeko aukera.
- Baja egoeren ostean (aldi baterako ezintasuna), epe horretan hartu ezin izan diren opor guztiak hartzeko eskubidea, baita HLko egun guztiak.

LAN OSASUNA:

- Lan kargak arintzeko neurri zehatzak adostu. Ordezkapenak lehen egunetik.
- Lan kargen ebaluzio adostua egin eta horren baitan, plantilla haunditu.
- Langileen ongizate fisikoa eta emozionala bermatzeko arrisku psikosozialen eta arrisku ergonomikoen ebaluzio adostuak urtebeteko epean. Eta neurriak adostu ondorengo urte betean

EUSKARA:

- Lehen aldiz lanpostu publiko bat kubritzera sartzen diren langileak (finkoak edo behin-behinekoak) euskararen ezagutza nahikoa dutela bermatu.
- 15 urtean lanpostu guztietan bi hizkuntza ofizialak derrigorrezkoak izatea, horretarako derrigortasun daten plangintza adostu eta langileak euskalduntzeko behar diren liberazio eta baliabideak ezarriko direla bermatzea

BERDINTASUN PLANAK:

- Diagnostiko egoki batean oinarritutako berdintasun plan eraginkorra adostu. Osakidetzak aldebakarrez onartu du II Berdintasun plana sindikatuon babesik gabe.

* Nire sinadurarekin bat nator ELAk planteatzen dituen aldarrikapenekin eta baita horiek lortzeko mobilizazioak egitearekin.

LURRALDEA:

■ BIZKAIA

■ GIPUZKOA

■ ARABA

ESI:

■ EZKERRALDEA ENKARTERRI CRUCES

■ BILBAO-BASURTO

■ BARRUALDE-GALDAKAO

■ BARAKALDO-SESTAO

■ URIBE

■ BIZKAIKO OSASUN MENTALA

■ SANTA MARINA

■ GORLIZ

■ DEBAGOIENA

■ BIDASOA

■ DEBABARRENA

■ DONOSTIALDEA

■ GOIERRI-UROLA GARAIA

■ TOLOSALDEA

■ GIPUZKOAKO OSASUN MENTALA

■ ARABAR ERRIOKA

■ ARABA

■ ARABAKO OSASUN MENTALA

■ ERAKUNDE ZENTRALA

■ EMERGENTZIAK

■ TGE EZ

Sinadura:



* Sinadura-bilketa honetan parte hartzea borondatezkoa da. Helburua ELAk proposatutako aldarrikapenei eta ekintza sindikalei babesa ematea da, Lan Baldintzen Akordioari buruzkoak izanik. Sinadura bilketa horren hartzailea ELA izango da. Lan Baldintzen Akordio berria lortu ondoren, ELAk ezabatu egingo ditu sinadura bilketa honekin bildu dituen datu guztiak. Dokumentu hau sinatuta, onartzen dut nire datuak sinadura-bileketa honetan erabiltzea, aurretik deskribatutako helbururako.